


cubre el misterio escondido en el objeto artístico que, a primera vista, puede pareceros ajeno o aséptico cuando, en realidad, encierra una innovadora visión estética y, en algunos casos, toda una concepción vital, como ocurre con la fase final de su investigación sobre el vacío que culmina con las *conclusiones experimentales* o con las últimas *cajas metafísicas*.

Las secciones finales de la obra de Soledad Álvarez hacen referencia a campos artísticos que, como ya hemos dicho, Oteiza trató en menor medida. Es, sin embargo, digna de resaltar la inclusión de un apartado con el título *El Legado de Oteiza*, en el que se pone al día la interpretación del escultor, releído por las nuevas generaciones de artistas que lo han tomado como referencia fundamental. Para redondear un trabajo hasta el momento único en su intento de crear una obra comprensiva y general sobre Oteiza, se incluye una extensa bibliografía sobre los escritos del escultor y sobre algunas de las publicaciones más significativas dedicadas a analizar su obra.

### Referencias:

- AGIRRE, Imanol y MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos (1998) *La estética de la diferencia*. Irún: Alberdania.
- OTEIZA, Jorge (1991) *Libro de los plagios. 1. Indeseable introducido como subdirector en el centro de arte Reina Sofía. 2. Formas de apoyarse en obra ajena*. Pamplona: Pamiela.
- OTEIZA, Jorge (2001) *Oteitza, espacialato*. Zaragoza: Ibercaja y Museo Fundación Jorge Oteiza.
- OTEIZA, Jorge (1998) *Propósito experimental*. Bilbao, Gobierno Vasco.
- ZULAIKA, Joseba (2002) *Guggenheim Bilbao Museoa. Museums, Architecture and City Renewal*. Reno: Center for Basque Studies.

Juan Arana Cobos



**ARTE y Arquitectura en el País Vasco: el patrimonio del Románico al siglo XX**  
Xesqui Castañer (ed.)  
Donostia-San Sebastián : Editorial Nerea, 2003. – 191 p. : il. col. ; 33 cm. – ISBN: 84-89569-60-6

“Arte y arquitectura en el País Vasco” izenburupean Euskal Autonomi Erkidegoan aurkitzen diren artelan eta mugimendu nabarienen sintesia biltzen da, Erdi Arotik hasita, gaur egungo mugimendu artistiko aipagarrienak aztertzen direlarik. Azterketa hori ez da azterketa edo garapen estilistiko hutsean geratuko, haratago joango da adibideekin jorratuz. E.A.E.ko ondarea aintzat hartuko du euskal artearen inguruko ibilbidea eginez, garai historiko zehatz bakoitzeko artelanik esanguratsuenak aztertuz. Egitura guztiz klasikoa da, ohiko banaketa kronologikoak jarraitzen dituzte egile ezberdinak, hauek garai bakoitzean espezialistak baitira.

Helburu nagusia E.A.E.-ko ondare artistikoaren ikuspegi zabala ematea da. Izaera sintetikoa du lanak eta ez du azterketa sakon bat izan nahi. Horrela izanik adibideetatik ezaugarri orokorretara eramaten gaitu, garai bakoitzeko adibide esanguratsuenak hartuz eta era honetan, estiloaren ezaugarri orokorretara iritsiz. Adibidez Behe Erdi Aroan eman zen hirien berpizkundea adierazteko Gasteizko hiri antolakuntza azaltzen da Erdi Aroko hirien ideia bat egin dezakegarrik. Hala ere, ez da adibide hauetan gehiegi sakondu, lanak eremu zabalegia hartzen baitu. E.A.E.-n emandako mugimendu aipagarrienen ikuspegi orokorra ematen du.

Ezin dugu lan hau irakurtzeko eta lantzeko interesa izango duen pertsona multzoa mugatu. Alde batetik mundu akademikotik at geratzen den jende guztiari zuzentzen delako sarreran eta bestetik idazleen profesionaltasunak, lana artearekin harreman akademikoa duen edonorrentzat bihurtzen duelako. Gaiari iaioak ez direnentzat sarrera moduko papera beteko luke liburu honek. Azken finean, katalogo kronologiko baten modura artikulatua dago, horrela artelanak ezaugarri estilistikoen gainetik jartzen direlarik, eta honek irakurle ez profesionalari erreztasunak emango dizkio. Erregistro errezean idatzita dago, interesa duen edonork ulertzeko modukoa, baina hori bai, zorrotzasun osoz, egileak azken finean ikerlariak eta espezialistak dira.

Adituentzat, berriz, katalogoekin parekatzen duen izaera hori dela eta, gida papera beteko luke, hemen agertzen baitira E.A.E.n dauden artelanik esanguratsuenak. Horretaz gain eta esan bezala, egileak unibertsitateko irakasleak dira guztiak eta ikerkuntzan zein irakaskuntzan duten esperientzia isladaturik geratuko da liburu osoan zehar.

Bibliografia eta iturriei dagokienez erabili dituzten materialak eta beren ikerketa esperientziaren arteko nahasketa argi eta garbi ikusten da. Bibliografiaren aldetik antzak dira gaiari buruz idatzi diren lanak baina normalean aurkitzen duguna gai zehatzei buruzkoak dira. Arraroa da arte historialariek idatzitako halako artelanen bilduma aurkitzea, maila lokalean behintzat edo E.A.E. bezalako gune txiki batera murrizten bagara aurkitzen diren lanak gai konkretuei buruz hitzegingo digute, baina kasu arrarotan soilik izango dute gune geografiko txiki baten artelanen laburpena egiteko nahia. Monografiak dira beraz aurretik aurkitzen den gehiena, lan honen helburua sintesi edo laburpen bat egitea delarik. Hori bai, esan beharko dugu E.A.E.ari buruz eta Nafarroari buruz asko eta asko idatzi izan dela lehenago, benetan monografia eta lan onak idatzi izan dira, Nafarroan gehien bat ikerketarako jarrera ona izan da azken mendeen, honek lan eta ikerlari bikainak eman dituelarik. Horrela izanik, oinarri ezinhobeia izan dute lan honen idazleek.

Egitura klasikoa dauka lanak, bai liburu osoa antolatzerakoan baita kapitulo bakoitzaren barruan ere. Sarrera batekin hasten da liburua, Xesqui Castañer-ek idazten du eta lanaren aurrean ideia orokorra egiten laguntzen digu. Hiru zati zabaletan antolatua izan da, hiru atal handitan: Erdi Aroko artea, Aro Berriko arte eta arte Garaikidea, hiruretan antolaketa bera erabiltzen delarik. Metodologikoki oso liburu klasikoa dela esan daiteke, ohiko inguru artistiko akademikoan erabili izan den metodologia aplikatzen delako. Hau da, arkitektura eskultura eta pinturaren gaiak kronologikoki aztertu egin dira batik bat hiru atal nagusi hauetan. Azken batean bertan parte hartu duten espezialistek metodologia historiografiko klasikoaren erabilpenarekin harreman zuzenean daude, guztiak ikertzaileak eta irakasleak ere bai. Hauek, beren esperientzia dozentea erabiliz eta ikuspegi artistiko historiko batetik ikusiz (agian ikuspegi estetiko baztertuz) euskal artearen zirriborroa irudikatu egiten dute. Horrela, antolaketa berdina erabiliko da liburu osoan zehar eta nahi pedagogikoa nabarmen geratuko da lanan egileen esperientzia dela eta.

Garai bakoitza bi egileen artean idatzi dute, aipagarria gainera guztiak E.H.U.-ako irakasleak direla bakoitza idatzi duen gaiaren arloan. Erdi Aroa Felicitas Martínez de


Salinas Ocio eta Juan José Usabiaga Urkolaren artean idatzi dute, biak Erdi Aroko artean espezializatuak daudelarik. Bigarren zatia Pedro Luis Echeverría Goñi eta José Javier Vélez Chaurri-k idatzi dute, hauek ere Aro Modernoan espezialistak bai ikerkuntzan baita irakaskuntzan ere. Azkenik Ana de Begoña Azcárraga eta Xesqui Castañer dira Aro Garaikideari buruz idatzi dutenak.

Lana erreztasunez erabili ahal izateko atzekaldean aurkibide ezberdinak ditugu. Aurkibide orokorra, gaiak eta idazleak zehazten dituenak, irudien aurkibidea eta izenen aurkibidea. Bibliografia ere atzekalde honetan kokatzen da, eta bibliografia era eroso batean antolatua dago. Garai bakoitzari dagokion bibliografia agertzen da. Erdi Aroko bibliografia dena elkarrekin agertzen da egileak alfabetikoki antolatuz. Aro Modernoako bibliografia orokor bat ekartzen du baina gero Berpizkunde eta Barrokoaren arteko banaketa egiteaz gain arkitektura, eskultura eta pinturaren arteko banaketa egiten da, erosoena bihurtzen delarik. Aro Garaikiderako ere arkitektura, eskultura eta pinturatik ezberdintzen da.

Garrantzitsua den beste gai bat irudiena da. Arteko liburu batean ezinbestekoak dira baina honetan are gehiago, esan bezala liburua adibideetan oinarritzen da ezaguri estilistikoetan edo estetikoetan baino gehiago. Hortaz adibide hauek ilustratzea behar-beharrezkoa izango da, lana zuzendua dagoen publiko profano horrentzat gehien bat. Irudiak gainera berriak dira eta kalitate eta tamaina onekoak, eta testuan agertzen denarekin bat etortzen dira.

Garrantzitsua da aipatzea lana berez ekarpena suposatzen duela. Agian ez da azken ikerketa eta hipotesien berri ematen, baina halako euskal artearen bilkurarik ez zegoen eta liburu honetan euskal espezialista hobereenen eskutik artelan aipagarrienen aukeraketa eskura dugu. Lehenago ere katalogo batekin parekatu dugu liburua eta honen abantailak gaineratik aipatu, baina azpimarratzea komenigarria izango zen. Bi maila ezberdinetan eragin izango du. Batetik adituen munduan konpendio edo gidarik ez zegoen aurretik, orain ikergai ezberdinak edo bibliografía zabala eskeintzen du honek. Gaian iaioak ez direnentzat berriz, liburu bakarrean ideia orokor bat egiteko aukera izango dute, entziklopedia baten modukoa, baina laburtua eta sintetikoa, gehiago ikasteko gogoia ematen duen lana, gahiegi nekatu egiten ez duen lana.

*Oskia Ugarte Abarzuza  
Elisabeth Eskisabel Azanza*



**AZCONA PASTOR, José Manuel**  
**Possible Paradises: Basque Emigration to Latin America**  
Foreword by W.A. Douglass; Translation by Roland Vázquez. – Reno : University of Nevada, 2003. – 600 p. – ISBN: 0-87417-444-9

El título de un libro no sólo es, o pretende ser, reflejo de su contenido, sino que también encierra en cierto modo una declaración de intenciones. La presente obra